

# *mm* lAtfZAiosco

©IZ©M ETA EMAKUME ©AZTEAI

AZTERTU TA AUSNARTZEKO ASMOAK,  
EGIPENAK ETA GERTAPEN BATZUK

## III

Azken urte auetan, aurtemein, gizadi osoarengan kinka gorri bat sortu da, guzien aldetik orrela ikusita dagoena, ta gaurko gizonen gogo, gizarte, uzkurtzazko ta giza-azpegiai dagokiena; ta onen aundia biurtzen ari zaigun kinka ori, bereziki, gaztediarengan datza, dagoaneko gizonak diran gazteengan, baiia batez ere biarkoak izango diranengan, ain zuzen Gizadi'aren gerokoaz erabaki bear-izango dute-nengan.

Eta gaurko ontan agertzen zaigun egiazko egipen auengarria, ez guziengan bana bai eguneko gazte geyenengan, onela zedarritu diteke: 1 — gaztediaren aldetik Yainkoa ukatzeko jokera; 2 — gaztearen egipen eta oituraetan gogoari buruzko tasunaren gutxitzea; 3 — ematen dituen iritzietan arrozkoa dan ustekizuna; 4 — aurreko gizaldikoen-ganako lotsaren peitza ta onarri gabeko urruintasuna; 5 — egipenetan gogo-mailleko kezkaen peitza; 6 — gaztea bera, bizira eldu arte, iriork ezer egin ez duela zentzunez gabeko ustea, ta berak guzia ondo ta laister egingo duela; 7 — erriketan jaurgo orokarreko jokera na-barria, jaurgo ori naiz fatxista naiz sozialista izan, eta iraultzaren bidez lortzekoa dana.

Gaurko giza-bizian eta batik bat gaztediarengan, oietxek dira egiazko izakera bedegarrak; eta izakera oiek bizi geran mende one-

txearen aldi ez oso atzerakoetan ororenak izan diran besteen aurrean mokoz-moko agertzen dira zearo. Orixe dala-ta, bidezkoa zaigu onela galdetzea: Zein ote da, orren aldi laburrean jazo dan aldatze orren ziotzat ar ditekena?; geron ustez, ez edo da erraz eta zeatzez ori atematea, bana jazotako egipen batzuk gogora ditzakegu, azken gi-zaldiengan beren eragipena burutu al-izan dutenak eta aurretik ikusi ezin izan dan era itsuaz edo dagiena.

Aide batetik, era guzikoak diran orokarkerizko erriketa-egipenak dauzkagu, gizonaren duintasuna beerano jetxi-erazi dutenak, izaki azke ta erantzunkorra bezela oldoztu ta yarduteko ezinean, asmatu ta erabakirik artzeko almenik ez-tuen errobot antzeko bat biurtzerano; Europa'n batez ere gertatu da orrelako jokera, ta bera gaintzeko gogoia izanarren, ezin edo da oraindik arauketa aien ondorio guziak zokoratztea; Ludi'an barna ere zabaldu da jokera ori ta Ego-Amerika'n batik bat jokatzean ari dira ikur ori daramaten erriketa-jaurgoak, eta almen oso aundiak berenganaturik dauzkatelako oso zalla dirudi oien ordez beste batzuk jartzea; ganera gaurko orokarkeridunen aurka orain jokatzen dutenek, beste erakundeak jartzeko asmotan ari dira, bana erakunde oiek be, beren egituran ezberdinak izanarren, beren ariketa ta beren elburuetan berdin ditugu; beraz, oietan eztago zuzentzerik, guziok nai dugun ondorio egokirik.

Gure egunetako beste egiazko egipena giza-jokaeraen azpegi guztietan ainbeste edatzen ari dan antzekundea dugu, tai gabe koskontzen ari dana, aurrerapen aundiak lortzeko isiaz doakiguna, gizon-egillea lankaiaren bidez uzteko elburua darraiena; orrela gaurko kirigaillu arrigarriek, len yakintza ta billaketaren oiturazko bideen bitartez lortzeko ezinak ziran ainbaketak dagizkite; irratiz, ikusirratiz, gizonak jarritako izar-mutil arrigarrien bidez zabaldu diran jakin-erazteak, beren almen izugarriagatik, oso txikiak biurtu dituzte guregandik oso urbil dagozen joandako aroetan gizonak zituen almenak; muin-indarraren koskontzea orren almen ikaragarria artzen ari dana, bere bidez izkillu bereziak egiten eta metatzen dizkigutelako, gizonaren biotzean izi ta bildur lazgarrienak ipintzen dituen, egunen batean erabilli ezker, giza-bizia suntzitzeko galbidean ezarriko lukena; ta gizonak bere burua guzia jasatekoa dakus, itsumen ankerrak orrelako ausiabantza sorreraziko balu, gaiztokiko arrokeri izugarria adierazten eta auengarria izango litzaken gizonak duen doai goragarriena, ots, bere adimena ain oker erabiltzean.

Gaurko Doipurua dugun H'garren Yon-Paulo'k lenengoa dan bere «Redemptor Hominis» idazti orokarrean, «gi2akoi sakona» bezela deituta izan danean, naimen oneko gizon guziekin Yosukristo'renganako zintzotasunean ari-izateko, ain zuzen gizonaren eskubideen aide jokatzean, gizona bere duintasunean txikituta geratzeko galbidea oarrerrazten da, onela mintzatzean: «gizonak, ez bere burua ez eta bizi-tokian berarena zaion lekua ere, ezin arbuyatu ditzake, ezin gauzaen yopua izatera eldu ere, ez ogasun-egituraen yopua, ekoizpenaketaren yopua, berarenak diran ekoizpenen yopua».

Nabaritu gabe ezin utzi diteken beste gertakari bat, neurri gabeko laket-egarriaren antsia da, gaztediarengan batez ere gertatzen dana, bere goza-irrikak betetzeko, al dituzken bide guziak erabiltzeko gartsuki leratuta; eta naiz ke-belarra, naiz alkoola, naiz mota guziko lo-bedarra darabilzki, era guzietako geyegikerietara eltzean, gai-laket sakonaren gozagarriak eman dizaioken guzirafio. Geyegikerien berezkoak diran ondorioak ezagutzen ditu, bana alaz ere begiak ixten ditu azpegi oiek ez ikusteko; bere gogo ta gorputza ere gaiezkoak diran irakaskintzak eta beren ondorioakaz andeatzen ditu, ta irakaskintza oiek okerrak diran bide ta norabideetan barna daramate, biziaren egi zeatza dan azpegi izuna onartzean, eta bere giza-duintasunaren gogo ta gaiezko ondasuna betetzeko elburuetaruntz doakigu.

Gertakari oiek eta aipa litezken beste batzuek ere, gaztedia, bere ibiltze zoroan, bidezkoa danez, Yainkoa'ren asmoa alboratzera datamate, ta, bearbada, bereziki, Yainkoa'ren asmoak bere baitan irakaskintza ta legedia dauzkalarik, arautzat artu duen gai-biziaren uste-aurkakoak diralako; alakotz, Yainkoa'ren izatea zearo ukatzen du, ta, orrela, bere burua agintzakeritzat dauzkan gogozko asmo ta legetatik azke begiratzen du, oien aurka jeikitzea bidezko ta bearrezkoa iruditzen zaiolarik. Aide guztietan ikusten ari geran egiazko egipena da ori, bai ta gure Erri'an bertan ere. Betidanik gure aberria sinismen eta uzkur-tzazko gogoaren babes bezela begiratzen zan, bana azken aldi auetan sinismenezara, jaustea arin eta goitiberakoa izan da. Gaur ezin esan dezakegu, inola ere, egi-egitza artzen zan «euzkaldun fededun» ura; gaur zera ortako uztea gure gizartearen mail jatorrenetarano eldu da, gaur Erria osotzen duten lagun geyenengan ezker Erri sifnstuna.

Apai-eredu ta euzkal-idazle yaukala izan zan Agirre'tar Txomin'ek, gure euzkera ta eliz-gizonaren jokabidea ainbeste maite zituenak, gure

Erri'ak inoiz sinismena galduko zuen oldozpenak ematen zion bildurra agerrerazi zuen, eta gure aldetik, aurrez bide zuen ura, zoritxarrez gertatu bear zanaren suzmoa izan ez ote zan uste bear dugu.

Begira dezagun, bereziki, gure egunetako euzkal-gaztedia; aide guzietatik datorren eta aide guzietara doan kinka orokarrak kutsutua dagoela ikusiarren, kinka orren igarotzeari mugarik ipini ezin zaiolarik, Ludi'ko gazte-talde guztietan aurki ditezken ondorio ta eragipenak ere eltzen zaizkio, eguneko jokeraen jasateko izakiak izanik; bafia ba-du gure gaztediak gure euzkal-aberriko bazter guztietatik datorkigun azkatasun-deadarrak ekartzen dion beste eragipena, deadar orrek gure Erri'ak bere buru-jabetzaren eskubidea aldarrikatzen duelarik, Erri-biziaren izatea gaizkatzeko bide bear eta bakarra danez eta bizi ori beti, aspaldidanik, galtze ta iltzeko zematurik daukagulako; euzkal-azkatasunaren antsai uka-ezinak diran eskubide ta bearraren alkartzetik sortzen zaigularik.

Guda gogorrea dugu gure aberria, enderri-elburukoa dan orren aide, betidanik egitan baiia bereziki ta sutuago azken mende t'erdi ontatik, aldameneko laterriek, indarrez, gure Erria menperatu zutenetik, enderri, enda ta laterriari buruzko beren asmoetara makurtu naitzan zuten unealdetik, bere jabetza tinkotzeko ta beren mugaen edapena gero ta geyago zabaltzeko; jokera ori, benetan, aspaldiko erregeen orokarkerizko gogoen jarraipena izanik, besteak menperatzeko mugarrak gabeko ase-ezinezko xedeak bultzaturik, eta bide batez beren lapurketak legezkoen itxura emateko naiean, oso goikoak, ororen ganeakoak eta yarkitzeko ezinak bailiran azalpenak ematen zituztelarik.

Askotan, gizon eta Erri'an eskubideak aldarrikatuak izan dira, batez ere lenengoenak, guzien aldetik onartzeko irakaskintza orokarra izateko naiean; bana aldarrikatze ori egin duten erakundeetan, esandako gure auzoko laterriak sartuta izan, eta orrengatik erakundeen erabakiak onartzeko guziak beartuta egon, naikoa dute gure enderri-eskubideak ukatzea, laterrien gafieko aipatu ditugun erakunde oien artekoak izan diranetik, batez ere, aiek onartzeko beartu ta izatetik beren burua ez ikusteko. Eta argi dago ukatze ortan jarraitzea ezinbestekoa zaiela, osterantzean gure eskari zuzenak bereala onartu bear-izango lituzketelako. Ta eztizkigute inoiz ontzat artuko gure uka-ezinezkoak diran eskubideak, egunen batean beren indarra bano aundia-goia izan liteken beste batek beartuta ezpadira..

la mendebete joan da, bearbada gure Erri'ak eman duen adimen audiienekoa izan zan Arana Goiri'tar Sabin'ek, Europa eratzten duten enderrien artean, argi ta indar aundiaz, oso berezia dan gurearen egia ikusi ta aldarrikatu zuenetik, eta euzkal-biziari egokiro eusteko ta gerorako zuzentzeko baitaezpadako elburuak aurkeztu zizkigunetik, gure Erri'an bere buru-jabetasunaren aldeko guda biziki indartu da; lendik ere, ondo oartu gabe, guda ortan zegoen naiz eta bere elburuetan oso mugatua izan; gaur abertzaletasuna, indarrean eta sakonean, geitzen ari zaigu gure Erri'aren giza-mail guztiengan, eten gabeko guda betean, beti oso gogorra zaiguna ta bereala gurenda izateko ongi ikusten eztiran almenak dituena. Bana, nai ala ez, guda ori gaur euzkaldun guziei dagokie, naiz jatorriz, naiz onarturik, naiz biziaren bearrak gure artean bizi-izatera ekarri dituenak izan.

Bidezkoa izan. bear, beraz,. abertzaletasun-indarketa orrek gure gaztediarengan ere eragiteko izatea; errialde guzietako gaztediak bezela, gurea ere, berez eta beti goiko asmoen aide jokatzeko bipil agertzen zaigu, berarenak bezela onartzeko ta beren aide bere burua gogo betean eskeintzeko. Bai, berez eta indartsuenik, euzkal-gaztedia ebazkizunaren erdian sartuta ikusten dugu, ta noizpait ukatzen baldin badu ere, orokar eta alkarrenganakoa dan eragipenagatik ezina zaio aintzakotzat eta aztertze kotzat ez eukitzea.

Ba-dira beste elburuak ere, gaztediari oso erakarkorrak zaizkionak, batik bat gizarteari dagozkionak, gazteak mail ortako zuzentzaren aide jokatzeko beti gerturik dagozelako. Orrela, sozialista ta marxista-motazko asmoak gure gazteen artean onartuak izan dira ta beren egitarauak ontzat artzen dituztela agerrerazi dute, ta batzuetan, txikia ez dan multzoan, gure euzkal-aberriaren enderrikoak barlo lenago jartzeko eldu arte; ezin ukatzekoa dugu egipen ori ta euzkal-azkatasunaren leyaetan ezin aiztutzekoa ere.

Gure gazte batzuen aldetik marxistaen asmoak onartzeko egipenean ba-dago aintzakotzat artzekoa dan azpegi bat. Gaurko gure gaztedia, bere aurtzarotik (geyenetan bere aurrekoen iritziaren aurka noski), orain aitzu nai diran ainbeste urteetan, berrogei baiio geyago, gogor eta ankerki, menperatu gaituzten erakunde fatxistek azi ta zuzenduta izan da. Fatxista-jokera guztien izakeragatik, orokarke-rizkoa dan azitasunak gure gaztedia eratu du, ta onek gauzak bereizteko

urteetara eldu danean zearo astandu eginarren, ezifia zaio artu duen azitasun orokar ortatik bere burua zearo azke ikustea; ta bearbada, orrengatik ain zuzen, onartzen ditu, batzuen aldetik bederen, marxistaen asmoak, fatxistaenen aurkakoak diranak, bana berengan orokarrak diran araubereziak ere daramazkitenak. Beren Erri'ak frankotarren aldetik jasan bear-izan duen menpetasun ankerraren aurka jeikitzean, euzkal-gazte askoren aldetik Marx'en asmoak onartzean azalzen duen azpegia aintzakotzat onar ditekelaokan gagoz.

Ba-dugu geron aldetik itxaropen bat, Batzuek artu duten marxista-bide ortan euzko-gaztediak jarri duen biotz-oldarra egokiro bideratuko dala uste dugu, etsi-etsita uste egokiagoa dan au onartzeko: Gure Erri'an, Erri bezela ta gure eskubide ta bearrez bizi al-izateko, ta era berean, Gizadi'aren aide egokiro jokatzeko ere, ororentzako ondorio ona lortzeko, euzkalduna bakarrik izango dan mallean barna yardun bear-izango dugu, oso onargarriak bezela agertuarren, gureak eztiran landaetatik el dakizkiguken asmoak guretzako artu gabe; ori izanezik, zentzungabeki ari-izatea izango da, gure aberriaren bizi ta gerokoa galbidean jartzeko; aberria geuk gaizkatu bear dugu, euzkaldunak bakarrik izan ditezken bideak erabiltzean, eta orrela jokatzan ezpada, gure Erri'aren beraren bizia ondatzean, gure indar guziak alperrik galtzea izango zaigu.

Oso erraz onartzen ditu euzkaldunak margo nabari ta erakarkorrez eskeintzen zaizkion azpegiak, beren aurrean gelgarriturik geratzeko ta gure enderri-bearrai buruz egokiak diran ala ez ondo begiratu gabe, batzuetan etxeko ebazkizun bereziak urrunatzeko ere eldu arte; ta naiz euzkal-izenaz eta euzkaldunak bezela jarri nai diran elburuak aipatu, egitan gure benetako euzkal-gizartearen izatearen aurkakoak diran asmoak, berarentzat onartzen ditu; ondorioz, zer dagien ongi ateman gabe, erbestekoak zaizkigun muetatze batzuk aintzakotzat artzean, esate baterako, karlatar eta liberalak, eskuma ta ezkerak, jauntxo ta menekoak, aitorzale ta aitorrezkoak, eta orrelako besteak; eta gure aldetik guziak astandu bear-izango genituke, gure egiazko euzkal-izaren aurka diralako. Alakotz, egin dezagun guziari, izatez euzkalduna bakarrik izango dan rnuna eman bearri diogu, ta orrela izango eztana gure aberriaren ondapenerako izango dugu.

Bi ayurri oso sakonak agertzen dira betidanik euzkaldunen artean, auetxek ditugunak: bat ona, euzkalduna ekintza-gizona bezela zeintzen duena; ayurri au oso nabaria izan da beti gure artean; Loyola'ko

Inaki, Xabier'eko Patxi ta Garikoitz'eko Mikel gogora ditzakegu, adibidez, ekintza-gizon nabarigarrienak bezela; beste ainbeste esan dezakegu Azkoitia'ko Zaldun'ai buruz; bai ta Arana Goiri, Zumarraga'tar Tomas eta beste mixiolariak buruz, beren egipenen aztarna sakonak utzi dituztenak; eta euzkal-kirolen izakera ere begiratzen badugu, Erri guzian agertzen dan ekintza-gogoaz beterik dagozela ikus dezakegu.

Beste ayurria txarra dala esan bear; sarri ta erraz taldekerizko ekintzetan bipil sartzeko jokera dana; ta or tan ere betiko bere gogoak bultzaturik ari dalako, ots, ekiteko gogoaz, bere itsukeriaz yarduten du almen eta indar aundienekaz, naiz eta askotan gure Erri-bizi ta enderriari buruzko gure egiazko bearren aurkako zentzunez eragin. Guzti orrengatik, oso egokia izango zaio gure gaztediari, aide batetik ekintzarako euzkal-gogoa bere baitan indartzea, ta bestetik aurrean aurki dakioken edozein asmoak atzipetu ta eramana ez izateko, arreta bereziaz ari-izatea.

Gure Erri'aren edestia goitik begiratzen badugu, taldekerizko gogoa gure Errialde'an beti izan dala ikus dezakegu, Ganboatarrak eta Onaztar, naiz Agramontarrak eta Beamontarrak eta Erdiario'ko beste taldeak gogora ditzakegu; urbillago ditugun aroetan, karlatarrak eta liberalak naiz zartzale ta berrizaleak naiz eusteko zaleak eta aurrerakoiak, diru-jabeak eta sozialistak, ekintza-jabeak eta langilleak, ots, beti zuri ta beltzak edo gorri ta oztinak edo eskuma ta ezkerak; euzko-abertzaletasunean ere erdibideketak sortu ziran, Alderdi ta Alkartzaleak bezela; gaurko egunean, ezkerreko abertzalearen izena daramaten malladi luze xamarreko erakunde ta taldeak, beren artean bereizteko lits batzuk dituztela. Aurtemein, gurean, ETA ekintza sortu da, bere bedegarrakatik eta euzko-lagunengan dagien eragipenagatik, ezagutu gabe utzi ezin ditekena; ta bere jokeraetan gure Erri'an beti izan dugun ekintza-gogoa agertzen bada ere, bi adarretan erdibitu da aurki, ebazkizunak berdin ikusten ez dituztenak, alkarrengandik bereiztean.

Erdibidetzeko jokera ezta gure Erri'an bakarrik ikusten, iritzien arauz gizonen artean erdibidetzeko sorrerazten dituenak; bafia jokera ori gurean eta gure edesti guzian barna oso nabarituak agertzen da, ta beti euzkaldunen arteko erdibidetzeko ondorio berbera ekarri digute, gure aberriari dagozkion egokitasunen aurka ta kaltegarri izateko, bein ere orrelaxe izan gabe.

Ez da usteko, norberaren iritzi ta bearren ganetik, gure Erri'aren biziari bereziki dagozkion ebazkizunak, ots, ororena zaigun enderri-

-biziaren arazoak lenengoz eta sakon begiratzeko egin liteken dei ertsia, egokiro entzuna izango litzakela; ongi baitakigu lerazko jokenak dauzkaten indarra ta al dutena nolakoak diran, eragitean Erri bezela dugun ororen bearren aldeko lan egoki ta berezirako izan ditezken eragozpena bezela ekiteko. Bafia, alaz ere, zentzun ortaz egiteko deia oso bearra ta ertsia dala uste dugu, beti zerbait lortuko dalakoan, naiz eta ori irixteko egoki ta bearra izango litzaken neurritan eldu gabe geratu.

Edozein eraz, aurreko egipen guztien ondorio bearra bezela, gaur bizi bear dugun euzkal-egokeran ari-izateko unealdira eldu gera; egokera ori, aide batetik barneko euzkal-kari ta zioek eraginda ikusten dugu, ta bestetik, Gizadi guziak jasan bear duen gogo-kinka aundiaren eragiteagatik ere, apika ori gurean ekintza ta lerazko euzkal-jokaeraengatik gorbiztuago gertatzen dalarik.

Gaur gagozen egiazko egokera onek barne-barnean mintzen gaitu, naiz euzkal-gizona dan notinari naiz gure Erri osoari bere izaeran guztiz galbidezkoa zaiela ikusi bear dalako. Ta eraginkorra izateko nai-izango. genuken osakaya bezela, al danean, ain aundia deritzaigun gaitza gutxitzeko, eztugu beste biderik ikusten, len gure giza-bizia betetzen zuten gogo-arauai, egitan Yainkoa'rengandik datozkigunai eustera itzultzea banc Geron burua, beraz, Yainkoa'ren izanaren asmoa berriz onartzera geron burua zuzendu bear dugu, uste etsi-etsita au arturik: asmo ori guregan tinkotuta, aipatu ditugun arau oiek gizonarentzat eta bera duintasunean eratzeko bidea izatera berriz bizi-egitaraua izateko jarri al-izango dimla.

Ezifia zaigu guri? noski, Yainkoa'ren izatearen egiztabiderik ematea, zenbakien yakintzako egiztabidearen antzeko eskatu edo bearretsiko litzaigukena, bana ebazkizuna egokiro erabil eta sakondu ditezkeela uste dugu, gizona ta gaurko, atzoko, biako ta betiko gizon guztien ganetik dagoen goi-goiko Izaki bat dagoela etsita geratzeko; Izaki ori Ludi'an eta Zabaldi'an dagoen guziaren sortzallea dana, gogoz eta gaiez gizona jaartzeko agindu eta gaidun osoa izate, bai ta izan eta izango diran beste izaki guztien izateaz ere.

## V

Ekin dezagun gure oldozmena erabiltzen, gure almen mugatuetan



bederen, irteera egoki baterano eltzeko gogoaz, eta asi gaitzen galdera bateaz:

Yainkoa izaki bizirik al da? Enurarik gabe! darantzugu, Sinismena daukagun eta gordetzen dugunok. Eta inoiz sinismenik euki ez dutenek edo euki ondoren galdu dutenek ezetz difiote, Yainko'rik eztagoela; ta Ludi'ko biziaren onarria ta Zabaldi'ati gertatzen diran egipenak, berezko ta alda ezinezko legeen arauz, gayareti ekintzaz eta egipen orren eten gabeko eratottzearen bidez azaltzean; bafia ezina zaie lege oien izaera zeatzez ikusi ta gutxiago tiundik datozen ez eta beren jatotria bezela jarrita ote dagoen arrona zein dan ere. Noski ezina da gayaren bizi-ekintza ta uste liteken bere eratortzea argiro egiztatzea; ta beste aldetik gayan bertan ekintza-almen txikienik egon ezkerok, gaya eztala aitortu bear-izango genuke, biziduna bano; dana dala, ortaz ere sinistea da egin bear dana.

Bafia gizonarentzat ezta aski bayetza borobillak egitea, naiz eta egin ditzakena yakintsu aundienetakoa izan; eta guziaren egiztabidea eskatzen du, bere oldoztean eta bere burubideetan benetako egia izaten eltzeko gogoaz; itzalik gabeko argitan bizi nai du, eiki. Ororena dan gogo ori guztiz ulergarria da, giza-izaerari oso berezkoa zaiona ta jakiteko yoranari berez ere dagokiona, aide ta aldi guzietako gizonengan, sakon eta aldakuntzarik gabe, ikusten dana; ta Zabaldi'aren irazale ta arautzale bezela, ororen gafieko Izaki baten izateaz, ezinbesteko bearra bezela, oldoztera daramazkiena. Gey ago ala gutxiago aitortutako asmo ori, gizaki guziengan bizi dala dirudi, guziaren ezagupenera eltzeko, barne-barneko beren yoranen ondorio bearra bezela.

Bizian barna Sifiismen'aren onarriari eusten gabiltzanok, Yainkoa deitzen dugun ororen gafieko Izaki ori ba-dagoela bayezten dugu, noski, orrela aitortzen dugu, yauresten dugu ta gauza guztien asiera ta amaya lez onartzen dugu. Ta sinismena da gugan guzti orri eusten diona, ta gure biziaren itxaropena betetzen duena. Bafia sinisgearentzat ezta naikoa Sifiismen'aren eukitze ori, siniste ori, ta Sinismen orrenganafio eltzeran eraman dezaketen egiztabideak eskatzen ditu; ezagutze zeatza eskatzen du, siniste utsa askitzat euki gabe; Yainkoa'ren izatearen egiztabideak bear ditu, ta guganuntz datorkigu er-tsiki eskatzeko.

Geuk, sinistunok, Yainkoa'ren izatearen egiztabiderik eman al dezakegu? Ene aldetik bai, ba-dagozela uste dut, ez bat bakarrik, egiztabideak asko bano, izate ori adierazten dutenak. Bafia au difiogu-

nean ezin oldoztu dezaket goi-zenbaki-yakintzan edo epaikunde bateko lekukotzat eman edo eskatu ditezkenak bezelakoak aurkezteaz; ez tut uste inork, geyena eskatuko lukenak ere, orrelako egiztabideak eskatuko litukela ta naikotzat izango luke Yainkoa deitzen dugun goiko Izaki orri buruzko etsipena ta ondoriozko sinistea, bidezko oldoztearen bidez lortzea. Ta orixe da, ain zuzen, batez ere, lerrotxo auen elburua, giza-burubideak, bere bearresteko ziurtasun aundiaz sirliste ortara eraman gaitzakela etsi-etsita izanik. Ekin dezagun, beraz, oldozteko guziok dugun almenaz yarduten aurkitu nai dugunaren billa, gure oldozmena jokoan jartzean.

Ortarako, Ludia dagoenetik toki guztietan, aro guztietan eta aldi guztietan, giza-ariman ain sakonki gertatzen diran berezko gurari batzuk begiratzen asi gaitzke; giza-gogozko izakiaren izateari dagozki, beraz gizon guzienak ditugu. Gurari oietako irutan zedarrri gaitzke, nagusienak bezela ar ditzakegunetan.

Ar dezagun, lenengoz, guziok egia ezagutzeko dugun benetako guraria; bafia guzitan egia, yakintzan egia, besteen biotzondokoetan egia, bai ta gerorenak diranetan ere, Gizadi guziaren edestian egia, gure aide, adiskide ta ezagunen maitasarretan egia, izaki txikienetan eta aundienetan dagoen biziaren egia, itxasoen zokondoko biziarena ta Zabaldi'ko izar eta izarbel guztietan dagoena, orain, len eta betiko gizonen ainbeste iritzi ta usteetan, itz batez egi guzia.

Bana ezina izan zaio gizonari, egin eta erabilli diran alegin aundienak ipifiiarren, bere azpegi batean bakarrik ere egi ori lortu al-izatea. Jakituna eten gabe ari da azterketan, gai bateaz eta batzuetan gai orren zati bakar bateaz yarduten, eta tai gabeko lan-bizi luze baten ondotik, jakin nai zuena atematera eldu ez dala aitortzen amaitzen da, ta beti aztertzeo geyago ta geyago geratzen dala ere. Biotzondokoak, notin bakar batengan ere, bere gogo-egokeraetan eragiten duten aldakuntzaen arauz ezberdinak izaten dira, ta askotan ezina zaio beren egiazko izakeran zeatzez nabaritzea ere. Edestia edesle bakoitzaren ezagupen eta begikotasunen bidez irizten da, izakaitasun ertsiaz ongi atematea inork lortu ezifian, eta ganera edesti-ezagupenak azterketa berri ta jarraituen bidez alda ditezke, aldatu ere. Maitasarreak ere aldakoiak dira ta inork berak dauzkaen egi osoa ezin bayeztu dezake. Ta norarlo el ditezke, naiz txikitan naiz aunditan, gure begiek ikusi ezin ditzaketan biziak?, naiz eta gaur gizonak erabil ditzaken lanabesa ta bitartekoak orren aundiak izan?; zer dago kizkinaren bi-

zian?; zer dago ezagutu al-izan diran urrutienetako izarrak bano aruntzago?; zer dago itxasoen oxin sakonetan?; aide ta toki ta azpegi guzti oietan dagoen egi guzia jakin al-izateko gogoia bete-ezina dirudi. Nola aldatzen dira gizonen uste ta iritziak?; egunero ta arazo bakoi-tzerako, ta orrengatik ain zuzen oietan tinkotasunik ez, eta ondorioaz egirik eztagoela adierazten da. Ta alarik ere, naiz jakitunak naiz ezer ez dakienak, berdin goi-ezagunetan eta berdin bekoetan ari diranak, gizon guziak egia jakiteko irrikaz bizi dira beti; ta irrika ori, gaur eta len, aide guztietan izan da ta gerokoan ere izango da eskierki. Gogo ta irrika oiek ifioiz ez dira beterik izan, eta ustekoa da bizi ontan ifioiz ere beteko ez dirala.

Emen aipatzen ari geran gurarien arteko bigarrena, zuzentzari da-gokiona da. Ba al dago, ifioiz egon al da giza-arremanetako mail gu-zietan zuzentza ertsiaren aide izan ez dana? Gizadiaren aro guztietan ona saritu ta gaitza zigortu ditzan egiazko ta benetako zuzentza jar-tzeko aldarrigegina da; eta guziok dakigu Ludi'an izan diran erailtza aundietaz, zigortu gabe geratu diranetaz... zenbat!; orok dazagu izu-garriak izan diran bidegabeko ondorioak jasan bear-izan dituzten berri, ta beren jasapenen ordez ezer artu gabe il diralarik. Ezta izan Ludi'an barna bere zuzentza jarri nai-izan jaurlaria, eztuen egitzat zeukana ta besteen aldetik arrerazi gura zuena, besteek ostetutako iritzi-az eta bidegabeketat begiratzen zutenen ustea aintzakotzat artu gabe. Eta gizaki guziek zuzentza eskatzen dute deadarka, mota gu-zietako asmoek zuzentzaren aide ari dirala oyukatzen dute, bakoitzak berak jarri al-izango duen bide bakarra dana bayezten. Eta zuzentza ezta eltzen; jaurlariek, naiz gogo onenaz yardun, eztute lortzen zuzen-tza-antolaketa egokia jartzea, ta aide guztietatik eltzen zaizkie, jaur-goaren bidegabeketa jasan uste dutenen aldetik oste-oyuak; ta berriz, jartzea burutzen ezta zuzentzaren eske deadarka; orixe gertatu zan aintzinean, orobat urrengo aro guztietan eta gaurkoan ere; orixe gero-koan eta beti gertatuko dala uste bear dana. Bai, egiazki, gizartearen aldi ta mail guztietan bidegabeketa izan da nagusi, eten gabe, urte ta mendeetan barna, Ta zuzentza-irrika bete gabe geratzen da bein-betiko.

Zer esan, gero, gizonaren irugarren gurari bateaz, nai duen eta egingarria deritzaion zorionaren billa daramanaz? Gizaki guziak nai dute, beti nai-izan dute zoriontsua izatea, guztiz zoriontsua, itzalik gabeko zorionaren jabe; bana bide-erdira irten zaizkie eritasunak, edo ezbearrak, edo aldarte txarrak, edo atsekabeak eta naigabeak, eta mota

guziko oztopoak, bere bizian barna, oso luzea izan bada ere, egiazko zoriona gozatzeko eragotzi dietenak. Eragozpen oiek eta besteak ere, asko, guziok dakigu gizartean egunerokoak dirala; gure adiskide ta gure etsaiengan dakusguz, maiteenak ditugun gure sendikoengan ere, geronen baitan, beti ezbear eta zoritxarren artean bizi bear baitugu. Inoiz noribait berrioren unealdiren bat eltzen baldin bazaio, bereaxe igarotzekoa izaten da, bereala zorigabekoren batek jarraitua izateko. Apika, giza-izaki zoriontsuena aurra dugu, bana berarengan ere laister agertzen dira berekoitasunak, bete ezin ditzakelako, asarre ta negarrera, atsekabe oso batera daramatenak; laister berarengan sortzen zaizkion gorputzaren egokera txarrak aipatu gabe. Sendi berri bat irasteko ta beragan zorionki bizi-izateko ametsak, azkar ezeresten dira, naiz eta alkarrenganako zintzotasunean jarrai, eguneroko gertae-rak dakarzkien egipen mingotzak apurtzen dituztelako. Alakotz, ez aurtzaroan, ez gaztearoan, ez gererdian, ez zartzaroan ezin ikus dezake gizonak bere burua zoriontsu, ta bizitik alde-egin bear du, oso txiki ta igeskorra izan dan zorionik bafto lortu gabe. Auxe bizian barna, gizaki guzientzat gertatzen ari da, betidanik eta betidano berdin; alan eta guztiz be, zorion osoa lortzeko amets eta yorana, jayo diran guztiengan sortzen dira, berezko ta indartsua dan eraz, giza-gogoaren egiazko bearra bezela.

Geroz, gizonaren izaeran bertan, esan dugunez, beste gurarien artean, aipatutakoak gertatzen dira, beren izaera orrezaz batasuna egiten bezela; esan ere, gurari oiek edestiaren aro guztietan eta Ludi'ko lutelesti-mutur orotako gizonengan gertatu ta gertatzen ari dira, enda edo errialde guztietan barna ta bereiztekorik ikusi gabe; orokarrak dira ta giza-izaeragan ertsiki kokatuak ditugu. Uka-ezina da ori, arazoa zuzen begiratu nai duenarentzat, argi-argia. Nolakoa ote itungarria dan orren ondorioa?; urrengoan ikusiko duguna, ezinbestekoa bezela geron aldetik dakusguna.

*XJrtubia*